

PDS eta Legak garaipen nabarmena lortu dute Italiako partzialetan

Komunista ohiak lehendabiziko indar bilakatu dira DCren aurretik

Achille Occhetto **A**komunista ohiaren Ezkerraren Alderdi Demokratikoak (PDS) eta Umberto Bossiren Lega Nord federalistak beste alderdi guztiak ezerezean utzi zituzten herenegun Italiako zenbait hiri eta eskualdetan eginiko hauteskundeen bigarren itzulian. Legak iparraldean duen indarra berretsi badu, PDS *partitocrazia*-ren alternatiba gisa azaltzen da.

ERROMA

Atzo Italiako Barne Ministerioak emandako emaitza ofizialen arabera, PDSk 405 zinegotzi eskuratu zituen botoen % 22,6rekin, eta Demokrazia Kristauari (DC) —botoen % 17,4ekin 359 zinegotzi eskuratu zituen— lehendabiziko lekua kendu dio Italiako politikagintzan. Lega Nordek iparraldeko eskualdeetan irabazi zuen, guztira botoen % 18rekin eta 286 zinegotzi eskuratuta. Hainbat

koalizio —alderdi eta liga berriak eta Rete eta PDSren arteko aliantza—, berriz, 206 zinegotzirekin geratu ziren.

Alderdi Sozialista mapa politikotik desagertzeaz geratu da, eta garai bateko hirugarren leku hori galdu egin du betiko. Lehendabiziko itzulian hautagai bakar bat ere ez zuen sartu alkatetzarako lehian, eta bigarren itzulian, berriz, botoen % 3,6 eskuratu zituen 94 ordezkari erdietsiz, Italiar Mugimendu Sozial ultras-kuindarrak (% 5,4) baino bost zinegotzi gehiago. Errepublikarrek 29 ordezkari lortu zituzten, eta Gobernuako koalizioa osatzen duten beste bi alderdiek, sozialdemokratek eta liberalek 29 eta 4 zinegotzi eskuratu zituzten.

RETE SENDOTU GABE

Italiarrek formazio politiko berrien aldeko erronka egin badute ere, emaitza desberdinak izan dira hauen artean ere. Izan ere, Rete koalizioak ez du berretsi lehendabiziko itzulian lortutako indarra. Leoluca Orlando Palermoko alkate ohiaren sareko hautagaiek galdu egin zuten Mi-

lan, Turin eta Catania hirietan, hauteskundeak egin ziren hiri nagusienetan hain zuzen.

Hiru hiri nagusi hauei dago kienez, Milanen Marco Formentini Legako hautagaiak PDSk, Refondazione, Retek eta berdeek aurkeztutako Nando Dalla Chiesa-ri irabazi zion. Turinen, berriz, Valentino Castellani PDSk, Berdeen Federazioak eta Mario Segniren Aliantza Berri-tzatzaileak aurkeztutako hautagaia irten zen garaile Retek eta Refondazione aurkeztutako Diego Novelliren aurretik.

Catanian jaso du Retek jipoirik handiena. Mafiaren aurka gehien borrokatu den alderdiko hautagaia alkate izateko atarian geratu zen, PDS, berde, berri-tzatzaile eta errepublikarren Cataniarako Paktukoak irabazi baitzuen.

PDSk lehenengo lekua irabazteko balio izan zizkion garaipenak Ravenna eta Siena hirietakoak izan ziren.

FORMAZIO BERRIEN INDARRA

Italiako prentsak alderdi tradizionalen porrota eta formazio berrien garaipena berretsi




Marco Formentini Legako hautagaiak alkatetza eskuratu du Milanen.

egin dela azpimarratu zuen atzo. Legak indarra erakutsi du iparraldean, eta Alderdi Komunistaren lekukoa hartu zuen PDSk, berriz, lehenengo lekua kendu dio DCri historia berrian lehenbizikoz. Dena den, PDSren garaipena alderdi txiki berriekin osatutako aliantzetan oinarritu

dela zioten komunikabideek. «Ezkerrak aliantza hauetan lortu du alternatiba. PDSk konturatu behar du bere indarra korrante hauetan oinarritzen dela, eta aurrerantzean paktu hau indartu egin behar duela benetako alternatiba bilakatzeko» zioen, 'La Repubblica' egunkariak.

Uztailak 4 IURRETA
EUSKALDUNON
JAIA 93



eman

arnasa

Egunkaria -ri